

47 egunez egun

2013ko maiatza



Beasaingoa

Beasaingo udal aldizkaria



Beasaingo udala

Loinatz jaietarako prest

2 iritzia 3 hondakinak 4 sorkuntza lokalak martxan 5 udalekuetan izena emateko aukera
6-7 Loinatz jaiak 8 Plaza azpiko zoruan berrikuntza eta Bareak-en erakusleiho lehiaketa
9 ongizatea auzoz auzo 10 Musika Eskola 11 laburrak 12 agenda

Denon artean, hobeto

Udal gobernu honen helburuetako bat hondakinen sailkapenean sakontzea da, eta dagoeneko zenbait pauso eman ditugu bide horretan. Bosgarren edukiontziairen emaitzak laster izango ditugu, eta horrez gain, beste zenbait inizatiba ere martxan jarri nahi ditugu, helburu bakarrekin: Zero Zabor bidean urratsak ematea eta Europatik datozen neurrietara egokitzea. Aldizkarian pausu hauen berri emango dizuegu.

Loinatz jaiak ate joka

Bestalde, 2013ko Loinatz jaiak iristear ditugu. Zenbait lan talderen lanari esker, egitaraua adostu eta aurrera eramateko gai izan gara aurtengoan ere. Ezin dugu ahaztu, festa batzordeak bere gain hartzen duen lana eta konpromisoa, guztiontzako ahalik eta jaiarik oparo eta aberatsenak antolatzeke asmoz. Urtea joan eta urtea etorri, batzorde honetako kide izan diren guz-

tiak, eta baita sartu den jende berria ere zoriondu nahiko genuke.

Eta nola ez, parte hartu ez duena ere animatu nahiko genuke datorren urtean parte har dezan. Eta ezin dugu ahaztu udal langileek egiten duten lana, bai festen aurretik eta bitartean, dena zuzen joan dadin. Eta herriko elkarteena ere bai, eurek antolatutakoa baita egitarauko ekintzen zati handi bat.

Horretaz gain, Loinatz jaietan ikurri-na balkoian jartzera gonbidatu nahi ditugu beasaindarrak.

Ea denon artean festa alai eta zoriontsuak pasatzeko moduan gauden, elkar errespetatuz eta jaietaz gozatuz.

koldo agirre • udaletik



Uno de los objetivos del Gobierno Municipal es avanzar en la recogida selectiva de las basuras, y ya hemos dado algunos pasos en este sentido. Pronto tendremos los datos sobre el uso del quinto contenedor; pero además, queremos dar otros pasos con el objetivo de garantizar la vía basura cero, para adecuarnos a las normativas europeas.

Por otro lado, se acercan las Loinatz Jaiak, y desde el Ayuntamiento queremos agradecer el trabajo que muchas personas hacen en la comisión de fiestas, así como el trabajo de los grupos culturales y los trabajadores y las trabajadoras del Ayuntamiento. Nuestro deseo es que pasemos unas felices fiestas, basadas en el respeto y la diversión.

inkesta Nola baloratzen duzu aurtengo Jai Batzordearen lana?



Edorta Martinez (herritarra)

El formato es similar al que había, aunque ha aumentado la participación. Sirve para recoger distintas ideas, especialmente propuestas musicales, de las cuales no todas acaban en el programa porque no son posibles o compatibles entre sí, pero lo hacen más plural. También se ha tratado la ubicación de las txosnas, asunto que requiere una reflexión que aborde no sólo su ubicación, sino todo su funcionamiento, busque soluciones a los problemas que generan, y se valore la aportación que realizan.



Kristina Apaolaza (Bareak)

Lehenengo aldiz hartu dut parte Jai Batzordean. Danborradaren gaietatik joan naiz, baina beste hainbat gairi buruz ere aritu gara. Gure iritzia eman dugu eta entzun egin gaituzte. Umeen txupinazoaren ideia bota nuen eta onartu egin da. Baina ez da jende asko joaten Jai batzordera eta pena da; gero kejardea alperrik da. Festak pasatutakoan balorazioa egingo dugu festak nola joan diren ikusteko.



Mikel Alvarez (Jazpana Fest)

Txosna batzordearen ordezkartzan izan gara bertan eta interesgarria izan da. Sekula ez dut aurretik festa batzordean parte hartu eta gustatu zait erabakiak nola hartzen diren. Bilera irekiak dira eta gerturatzen den orok du hitza bertan. Askotan kalean jendea kexuka ibiltzen da festa egitarauaren inguruan eta jakin behar lukete, beraiek ere egitarauaren garapenean parte hartzeko aukera dutela batzordera gerturatuz.

Edukiontzi marroia erabiltzen ez dutenentzat kanpaina hasiko dute

Sasietak maiatzaren 7tik 9ra informazio puntuak jarriko ditu kalean eta 'Hondakinak ondo bereizteko gida' banatuko dute etxez etxe, aste honetan, 'Birziklatzea erraza da' aldarrikapenarekin.

Martxoan edukiontzi marroiaren erabilera areagotzeko kanpaina hasi zuten Sasietak Mankomunitateak eta Beasaingo Udalak. Edukiontziaren giltzaren ordean, sarraile elektronikoa ere jarri zuten, datuen bilketa egin eta ondorioak ateratzeko. «Kanpaina gehiegi egin gabe 150 erabiltzaile berri izan ditugu. Horretaz gain, nik uste edukiontzi marroiaren giltza jasota eduki arren, erabiltzen ez zuten asko berriz ere erabiltzen hastea lortu dugula; suspertze bat eman da», dio Enrike Enparantza Sasietak Mankomunitateko teknikariak.

Hondakin organiko gehiago biltzen den ala ez jakiteko, oraindik goiz da. «Kilotan oraindik ez da ondoriorik atera, hiletik hileria aldakorra izaten delako, eta denbora bat pasatu arte ez ditugu benetan emaitzak ikusten».

Erabiltzaile berriak

Beasaingo Udalaren helburua zaborrik ez sortzea eta ahalik eta gehien birziklatzea da. Birziklapen datuak hobetzera bultzatu nahi ditu beasaingarrak, «guk etxean sortzen ditugun hondakinei guk eman behar diegu irtenbidea», diote Udaletik.

Illo horretatik, oraindik edukiontzi marroirik erabiltzen ez dutenei zuzendutako kanpaina egingo dute Sasietak eta Udalak datozen egunotan. «Orain arteko da-



Informazio gunea

Loinazko San Martin plazaren azpian edukiontzi marroiaren inguruko informazio gunea jarriko dute:

- Maiatzak 7: 16:30 - 19:30.
- Maiatzak 8: 10:00 - 13:00.
- Maiatzak 9: 16:30 - 19:30.

tuek esaten dute Beasaingo herritarren erdiek bakarrik hartu dutela txartela eta beste erdiek ez. Gure erronka herritar guztiak hondakinak ondo bereiztu eta ahalik eta gehien birziklatzea da». Horretarako kalean informazio puntuak jarri-

ko dute Loinazko San Martin plazaren azpian.

Ondo birziklatzeko gida

Hondakinak sailkatzeko garaian sarri zalantzak sortzen direnez, zalantzak argitzen laguntzeko 'Hondakinak ondo bereizteko gida' banatuko du Sasietak maiatzaren 2an eta 3an etxez etxe. «Gida horrekin batera idatzi bat joango da egutegiaren berri emanez eta jendea izena ematera animatuz».

Auzokonpostea

Zero Zabor norabidean urratsak emateko Udalak martxan jarriko duen hurrengo pausoa, norberak sortutako hondakin organikoekin ongarri naturala sortzea izango da. Gaur egun Beasainen 86 konpostagailu daude banatuta. «Hala ere beasaingar askok ezin dute sistema hau erabili konpostagailua ipintzeko lurzoru naturala behar delako». Kasu honetan Udalak Anbulatorio zaharreko berdegunean gune bat prestatuko du konpostagailuekin nahi duten bizilagunek erabili dezaten. Honetarako bilera informatibo bat antolatuko da, eta festen ondoren hasiko da Udala gunea egokitzen.

Horrela, gaur egungo bilketa zirkuitutik aterako dira hondakin organikoak, eta ezertarako balio ez duen materia lurra ontzeko erabiliko da.

El Ayuntamiento de Beasain y la Mancomunidad de Sasietak empezaron en marzo una campaña para potenciar el reciclaje de los residuos orgánicos. Para ello, colocaron la cerradura electrónica en todos los contenedores marrones, cuyo objetivo es recopilar datos sobre el uso del contenedor.

Según los datos que ha aportado Sasietak, 150 nuevos usuarios solicitaron la tarjeta para el contenedor marrón. Con ese aumento, se puede decir que

sólo la mitad de los beasaingarras tiene la tarjeta para el uso del quinto contenedor. El Ayuntamiento de Beasain quiere avanzar más en el reciclaje y dar pasos en la filosofía basura cero, y en mayo se realizará una nueva campaña dirigida a las personas que no reciclan. El 7, 8 y 9 de mayo pondrán mesas informativas debajo de Loinazko San Martín plaza.

Además de las mesas informativas, Sasietak difundirá la 'Guía para una

correcta separación de los residuos'. «Nuestro reto es que toda la ciudadanía separe bien los residuos y que se recicle lo máximo posible».

Girando en torno a la filosofía basura cero, el Ayuntamiento creará una zona para el compostaje comunitario, en el jardín del antiguo anbulatorio. Así, los vecinos y las vecinas del centro también podrán hacer compost. En los próximos días se realizará una reunión para explicar detalles.

Sorkuntza lokalak martxa bizian

Dagoeneko amaitu dira Antzizar azpiko lokaletako obrak. 29 areto egokitu dira herriko gazteen sorkuntza proiektuei leku emateko. Parte-hartze prozesu bat egin da zenbait erabaki zehazteko

Antzizar kiroldegiaren azpian zeuden lokalak erregulatu eta hauek erabili nahi zituzten gazte gehiagori aukera emateko asmoz, joan den urteko azaroan parte-hartze prozesu bat jarri zuen martxan Udalak.

Bileretara orain arte lokalak erabili izan dituzten gazteak eta aurrerantzean erabiltzea gustatuko litzaieken gazteak azaldu dira. Oso erantzun ona izan dute bilerek. Bertan funtzionamendu arauen inguruko oinarriak, eta higiene eta segurtasun gaiak landu dituzte. Taldeek euren iritzia emateko aukera izan dute. Prozesuaren amaierako azken bilera, sorkuntza lokaletan bertan egin zuten.

Sorkuntza lokaletan lekua izan nahi duten taldeek, lokaletan zer egingo dutenaren proiektu bat aurkeztu dute. Proiektuak aurkeztu dituzten taldeen %95a musika taldeak dira. Musika taldeen gehiengoa rock musika taldeak badira ere, DJak, antzerki taldeak, BKL saskibaloia taldea, pintura eta artea lantzeko helburua duen talde bat, Jazpanakoak eta bestelako taldeak ere badaude tartean eta, beraz, erabilera anitza izango dute lokalak. Sorkuntza lokalak erabiliko dituzten hiru talde dira Devon rock taldea, Antzerki Taldea eta Iñigo Garmendia Dj-a. Gustura daude egokitutako lokalekin.

29 lokal eraberritu dira guztira eta eskaera aurkeztu duten talde guztiei egin zaie lekua bertan, nahiz eta talde ba-



Parte-hartze prozesuko azken bilerako irudi bat, lokalen sarrerako gunean.

•• Aldatu diren txikikeria batzuk gustatu ez bazaizkigu ere, orokorrean ondo joan dira parte-hartze prozesuko bilerak ••

Iñaki Berasategi
Devon rock taldea

•• Lehen ez bezala, orain nahi dugunean etor gaitezke entsegatzera. Lokala handiagoa da gainera. Oso gustura gaude ••

Anita Alonso
Antzerki taldeko kidea

•• Ez da gutxi nahi duzunean nahi adina zarata ateratzeko moduko leku bat izatea, eta gainera dohainik. Ezingo gara kexatu ••

Iñigo Garmendia
Dja

tzuk lokala beste talde batzuekin banatu. Obrek uste baino gehixeago iraun dute eta bitarte horretan taldeek izandako pazientzia eskertu nahi du Udalak, «jakitun baikara askok beraiei kasa lokalak bilatu behar izan dituztela bitarte honetarako».

Duela bi aste egin zen azken bilera lokalen erabiltzaileekin eta oraindik azken uneko arazotxo batzuk egon badira ere, lokalak erabiltzen hasi dira gazteak jada. Aurrez proiekturik aurkeztu ez duten taldeek eta lokal horietan leku bat nahi dutenek oraindik ere badute eskaera eta proiektua aurkezteko aukera. Horretarako Gazteria sailean aurkeztu beharko dute euren proiektua.

tivas y se han podido debatir y conocer de primera mano las necesidades que tienen los grupos. También se han marcado ciertas pautas de higiene y seguridad, para que se haga un uso adecuado de los locales.

Por otra parte, el Ayuntamiento agradece la paciencia que han tenido los grupos, ya que las obras han tardado más de lo esperado. El Ayuntamiento quiere recordar que los grupos que no hayan presentado sus proyecto y quieran un local todavía están a tiempo, ya que aún quedan locales libres.

El Ayuntamiento de Beasain ha realizado un proceso de participación para regular el uso de los locales que había debajo del polideportivo. En total se han renovado 29 locales y todos los grupos que han presentado sus propuestas de creación han conseguido un sitio.

El 95% de los grupos son grupos de música, pero también hay un grupo de teatro, de baloncesto, Jazpana, pintura, etc. Algunos locales serán para un sólo grupo y otros acogerán a más de un grupo.

Las reuniones han sido muy participa-

Kiroldegiko udalekuak

Kolonia Txiki (2009/2008):

10:00-13:00: Igeriketa + psikomotrizitatea + jolasak
(natación + psicomotricidad + juegos)

Kirol kolonia (2007/2005):

10:00-13:00: Igeriketa + tenisa + kirol jolasak
(natación + tenis + juegos deportivos)

Kirol festa (2004/1997):

10:00-13:00: Tenisa + kirol alternatiboak + ur festa
(tenis + deportes alternativos + fiesta acuática)

Kirol abentura (2004/1997):

10:00-13:00: Eskalada + arku tiroketa + multiekintzak
(escalada + tiro con arco + multiactividades)



Datak

1. txanda: Ekainak 24 - uztailak 5

2. txanda: Uztailak 8 - 19

3. txanda: Uztailak 22 - 30

Zaintza eta jangela zerbitzua aukeran

08:00-10:00 / 09:00-10:00 Zaintza Guardería.

13:00-14:00 / 13:00-15:00 Zaintza + jangela
Guardería + comedor

Udalekuetako tarifak

Txandak	1	2	3	1+2	1+2+3
Bazkidea / socio	63,30	63,30	31,65	117,65	146,80
Ez bazk./no socio	109,25	109,25	54,65	203,20	253,40

Izen ematea:

Maiatzaren 15etik ekainaren 14ra.

Inscripciones: Del 15 de mayo
al 14 de junio.

Antolatzailea: Antzizar kiroldegia

Udaleku musikalak, musika bai!

- **Noiz:** Ekainaren 24tik uztailaren 5era,
- **Ordutegia:** 09:30-13:30
- **Norentzat:** 4-12 urte bitartekoentzat
- **Izen emate epea:** maiatzaren 27tik ekainaren 7ra.
- **Prezioa:** 80 euro. Familia ugariak % 20ko beherapena.

Musika maitatu, sentitu, ulertu eta bizitzeko metodo dibertigarria, haurrek gehien atsegin dituzten ekintzak erabiliaz: jolasak, marrazkiak, mimoa, dantza eta abar... eta beti musika!



Del 24 de junio al 5 de julio, 09:30-13:30
Dirigido a niños y niñas de 4 a 12 años.
Plazo de matriculación: del 27 de mayo al 7 de junio.
Precio: 80 euros. Familia numerosa: 20 % de descuento.

Aprender a amar, sentir, entender y a convivir con la música con un método divertido, utilizando las actividades que más les gustan a los niños y niñas: jugar, dibujar, cantar, bailar... y siempre música.

Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola

Loinazko San Martin plaza, z/g 943 028 105 musikal@beasain.net

Loinatz jaiak herritarren nahierara

Maiatzaren 10etik 19ra izango dira aurten Loinatz jaiak. Jai batzordean parte hartu duten herritarren iritzia kontuan hartuz, hainbat aldaketa egongo da aurtengo egitarauan.

Bertan dira jada Beasaingo Loinatz jaiak. Aurten nobedadez beteta dator egitaraua. Herriko hainbat elkartetako kideek eta bestelako norbako batzuk egin dituzten bileretan hartu dira festak nolakoak izango direnaren erabakiak, Udaleko Kultura eta euskara, Zerbitzuak, Hezkuntza, Gazteria, Kirola eta Udaltzaingoa sailetako teknikariek batera.

Otsailean hasi ziren festak prestatzen herritarren iritzia kontuan izanda, eta guztira sei bilerak egin dituzte. Ahalik eta Loinatz jairik bikainenak eskaintzeko asmoz, herritarrekin erabaki dira festen egitaraua, ordutegiak, txosnen eszenatokien kokapena, ekarriko diren musika taldeak eta beste hainbat eta hainbat erabaki.

Hasiera desberdina

Festen hasiera iragartzen duen txupinazoa eguerdiko 12:00etan izaten zen orain artean, eta ordu horretan jendea lanean edo eskolan izaten zenez, ez zen inor egoten. Hori aldatzeko arratsaldera pasatzea erabaki dute Jai batzordean. Gainera, herriko umeei protagonismoa emateko asmoz, LHko 5. mailako haurrek egingo dute pregoia, Mariri gaueko 22:00etan Murumenditik jaisteko deia ere eginez. Herriko ikastetxeek txandaka egingo dute pregoia: umeen danborradan karroza antolatze-

Berrikuntzak labor-labor

- **Txupinazoa:** Herriko umeei egingo dute arratsaldean plazan, Mariri gauean etortzeko dei eginez.
- **Txosnak:** Bideluze kokatuko dira. Txosna gutxiago jarriko dituzte: lehen sei jartzen ziren eta orain hiru jarriko dituzte.
- **Oholtza bat:** Bi oholtza egon ordez, bakarra egongo da, Bideluze plazan.
- **Egan talderik ez:** Egan taldearen ordez Tximeleta taldeak joko du koadri-la egunean.
- **Su festa musikatu:** Antzizar kiroldegiri ingurutik suak bota ordez, Igartzako jauregiaren inguruan musikaz lagundutako su festa egingo da.
- **Karrozarik ez:** Helduen danborradan ez da karrozarik joango.
- **Danborradako abestiak:** Danborradako abesti guztiak egile beasaindarren abestiak izango dira.
- **Beasaingo joaldunak:** Lehenengo aldiz Beasaingo joaldunen parte hartzea izango da.
- **Zaldizurretan elkarbizitza:** Bizilagunak ez molestatzeko Zaldizurretako bi plaketan ez akanpatzeko eskatzen zaie moztortuei.

ko ardura duen ikastetxe bera arduratuko da pregoiaz, hau ere txandaka egingo baitute.

Txosnen gunea, Bideluze

Aurtengo beste aldagaitetako bat txosnen kokalekua izango da. Azken urteetan txosnak defizitarioak izan direnez, aurten Bideluze plazan jarriko dituzte. Lekua aldatzeaz gain, aurten gutxiago jarriko dira: hiru txosna jarriko dira sei elkarte ezberdinentzat (Herrira, Ernai, Gaztetxea, Jazpana, Ehunmilak eta Mujika taldea). Soinu aldetik bizilagunei ahalik eta gutxien molestatzeko helburuarekin, limitadore bat jarriko dute, musika oso altu egon ez dadin.

Helduen danborrada

Helduen danborradan ere aldagaitak izango dira. Karrozak izaten zuen 2.880 euroko kostua ikusita, karrozarik ez egitea erabaki da aurten. Erabaki hau ere elkarte ezberdinekin kontsultatu ondoren hartu da. Aurreztutako dirua erraldoiek hain beharrezkoa zuten zaharberritzea egiteko erabiliko da. Bestalde, danborradan joko diren abesti guztiak musikari beasaindarrek konposatutako abestiak izango dira.

Su festa

Su festa ere lekuz eta moduz aldatuko dute aurten. Orain arte suak Antzizar in-

Ya están aquí las fiestas de Beasain. Tras las reuniones que comenzaron en febrero, se han realizado diversos cambios en el programa de fiestas, con el fin de que sean del gusto de todas las personas.

Las fiestas serán diferentes desde el principio. El chupinazo lo harán los niños y niñas, y lo harán turnándose, como lo hacen con la carroza de la tamborrada, y lo harán a la tarde, para que pueda ir más gente a celebrarlo. Con el pregón llamarán a Mari para que baje

a Beasain. Otra novedad es que las txosnas cambiarán de sitio: habrá tres en vez de seis y se ubicarán en la plaza Bideluze. Pondrán reguladores para limitar el sonido, con el fin de molestar lo menos posible a vecinos y vecinas.

El dinero que se utilizaba para hacer la carroza de la tamborrada de adultos se utilizará para pagar los gastos de renovación de los gigantes. Además, todas las canciones que tocarán en la tamborrada serán piezas de compositores beasaindarras.

Novedades

- **Chupinazo:** El chupinazo lo harán los niños y las niñas a la tarde.
- **Txosnas:** Estarán en Bideluze, y habrá un sólo escenario.
- **Tximeleta:** En vez de Egan, el día de cuadrillas tocará Tximeleta.
- **No habrá carroza** en la tamborrada de adultos. Todas las canciones de la tamborrada serán piezas de compositores beasaindarras.



Mariri gauean etortzeko deia egingo diote umeeek arratsaldeko pregoian.


gurutik botatzen baziren ere, aurten lgartza Multzto Monumentaletik botako dira, musikaz lagundurik.

Egan taldearen ordezt, Tximeleta
Koadrilen egunean urte askotan Egan taldeak kontzertuak eman baditu ere, Jai Batzordeko bileretara joan diren herritarrek aldaketak eskatu dituzte. Beraz, Eganen ordezt, Tximeleta taldea etorriko da aurten. Erromeriako eta giro askotariko musika jotzen du Tximeleta taldeak.

Zaldizurretan elkarbizitza
Azken urteetan, Zaldizurreta kalean dauden bi plazatxoetan (goi eta behe)

mozorro egunean ohitura bihurtu da koadrila batzuk bertan akanpatzea. Goizean-goizetik jartzen dira beraien musika-ekipo, edari eta guzti, bertatik mugitu gabe egun osoan zehar eta gauean ere bertan jarraitzen dute, zarata handia sortuz.

Bizilagunak udaletxera etorri dira gai honen inguruan kexatzera. Udalak bilera ezberdinak egin ditu (tabernariekin, bizilagunekin...), denentzako egokia izango den irtenbide bat aurkitu nahian, baina, ez da erraza. Udala jakitun da festak urtean behin direla, eta jendeak ondo pasa nahi duela, baina, taberna zein txosna inguruan dauden bizilagunek zarata handia edukitzen



Irabazleak

Mikel Cerdeirak irabazi du aurtengo festetako kartel lehiaketa helduen mailan. Gazteen mailan, La Salle-San Jose ikastetxeko ikasleen kartela izan da irabazlea.

Inoiz baino jende gehiagok parte hartu du aurtengo kartel lehiaketan: guztira 141 lan aurkeztu dira (128 umeenak eta 13 helduenak).

dute goizeko ordu txikiak arte, eta ahal den neurrian beraien atsedena ere bermatu beharrean dago.

Horregatik, jaiak eta bizilagunek atsedena hartzeko aukera uztartzea eskatzen da Udaletik. Guztiok dugulako jaiak gozatzeko eskubidea eta elkarbizitza eta errespetua ezinbestekoak direlako, horrelako akanpadarik ez egitea eskatzen da.

Novedades

- **Beasaingo Joaldunak:** Saldrán por primera vez.
- **Se pide no acampar en Zaldizurreta el día de los disfraces:** Tras haber recibido diversas quejas y con el fin de que todas las personas puedan disfrutar de las fiestas, el Ayuntamiento pide que no se acampe en las plazas de Zaldizurreta.

Los fuegos artificiales se echarán en lgartza, en vez de echarlos desde Antzizar, y este año, además, irán acompañados de música.

Egan, que tocaba el día de las cuadrillas, será sustituido por el grupo Tximeleta, dando respuesta a la petición de las personas asistentes a las reuniones.

Se han recibido diversas quejas de la calle Zaldizurreta, quejándose de que el día de los disfraces acampa mucha gente en las dos plazas que hay en esta

calle, bebiendo y poniendo música, alargando la fiesta hasta altas horas de la noche y haciendo mucho ruido.

Siendo conscientes de que las fiestas son una vez al año, hay que disfrutar de las fiestas, respetando el derecho a descansar de las personas.

Hemos realizado varias reuniones con los bares, vecinos, etc., y aunque sea difícil llegar a un acuerdo, el Ayuntamiento pide que no se acampe en las plazas de Zaldizurreta el día de disfraces.

Plaza azpiko zorua garbitu dute

Plaza azpian egiten diren ekintzak anitzak dira, eta denborarekin zikindu egin da zorua; Udalak garbitzea erabaki du eta itxura berrituarekin astearteko azoka eta ohiko ekintzak hartzen hasi da

Azken urteetan plaza azpiak erabilera handia izan du, eta emandako tratamenduarekin zoruari itxura berri eta iraunkorrago bat ematea izan da Udalaren nahia.

Tratamendua amaituta, zorua irristakor geratu zen, eta kontratatutako enpresak hirugarren tratamendua eman dio lurrari irristakortasun hori kentzeko.

Udalak herritarren segurtasuna bermatuko du eta irristakortasun araudiak ezartzen duen parametroetara iritsi arte ez ditu amaitutzat eman hasitako lanak.

Udalak hasieran aurreikusitako aurrekontuaren barruan egin dira lan guztiak, enpresarekin hitzartutako lan baldintzetan irristakortasun maila hasiera hasieratik lotuta zegoelako.



Loinazko San Martin plaza azpia.

En los últimos años el bajo de la Plaza San Martín ha acogido diversos actos, los cuales han estropeado y ensuciado el suelo.

Por ello, el Ayuntamiento ha renovado el suelo de los bajos de la Plaza San Martín, aplicando un tratamiento especial para limpiar la superficie. Una vez terminado el tratamiento, el suelo quedó resbaladizo y para solucionar el problema se han aplicado otros dos tratamientos.

El Ayuntamiento ha trabajado hasta que el suelo ha quedado en condiciones adecuadas para su uso. Según lo acordado con la empresa ha ejecutado los trabajos, el Ayuntamiento no correrá con el gasto del tercer tratamiento aplicado.

Loinatzetako erakusleiho dotoreena

Udalak eta Bareak merkataria eta ostalari elkarteak erakusleiho eta lokal dotoreena aukeratzeko lehiaketa antolatu du aurten ere Loinatz Jaiei barruan. Maiatzaren 14an emango dituzte sariak.

Udalak eta Bareak merkataria eta ostalari elkarteak erakusleiho eta lokal lehiaketa antolatu dute Loinatz Jaiei barruan. Lehiaketan parte hartzen ari diren dendetako erakusleihoak festak oinarri hartuta apainduta daude, eta orain horien guztien artean dotoreena eta originalena aukeratzeko garaia da.

Maiatzaren 8ra arte eman daiteke botoa, festetako egitarauan atxikita dagoen txartela bete eta Bareak-eko edozein establezimendutara eramanda. Elkarteko dendetan eta tabernetan dauden bozketa txartelak beteta eta Bareak-eko Facebookean ere eman daiteke botoa.

Botoa ematen duten herritarren artean Bareakeko produktuekin osatutako otarra zozkatuko da. Sariak maiatzaren 14an banatuko dira, Bideluze plazan.

Puntuatzerakoan gaiak festekin zeri-

kusia izatea, originaltasuna eta hizkuntza paisaian euskarari lehentasuna ematea hartuko dira kontuan.

Lehen hiru saridunek plaka bat jasoko dute eta lehenengo hamarren artean sari berezia banatuko da. Udaleko ordezkari batek, Bareak-eko bik, herri-epaimahai kide batek eta aditu batek osatuko dute epaimahaia.

●● Hilaren 8an amaituko da Bareak-ek Loinatz jaietarako antolatu duen erakusleiorik eta lokalik dotoreena aukeratzeko epea ●●

El Ayuntamiento y la asociación de comerciantes y hosteleros Bareak ha organizado un concurso de escaparates y locales en torno a las Loinatz Jaiek. Los comercios ya están listos para que los beasaindarras puedan elegir el más original, dando su voto rellenando el boleto que recibirán con el programa de fiestas, en los establecimientos de Bareak o en el Facebook de Bareak.

Los criterios que se tendrán en cuenta a la hora de valorar los escaparates son, la relación con las fiestas, la originalidad, y la prioridad que se le da al euskara en el paisaje lingüístico.

Una vez rellenado el boleto, hay que entregarlo en cualquier establecimiento de la asociación, antes del 8 de mayo. Entre los participantes se sorteará un lote de productos de los establecimientos de Bareak. El premio se dará el día 14, en la plaza Bideluze.

Gizarte zerbitzueta teknikiariak auzoetako bizilagunekin bildu dira

Bilera emankorrak ari dira izaten. Arriarango, Beasainmendiko eta Astigarretako auzotarrekin egin dituzte dagoeneko lehenengo bilerak; gainerakoekin uda aurretik elkartuko dira.

Herriko auzoetako errealitatea eta beharrak bertatik bertara ezagutzeko eta gizarte zerbitzuak udalxetik atera eta zabaltzeko helburuarekin, Gizarte Zerbitzueta teknikiariak eta Ongizate zinegotzia Arriarango, Beasainmendiko, Astigarretako, Garingo, Matxinbentako eta Gudugarretako bizilagunekin elkartzen dira. Izan ere, «azken urteetan gizarte zerbitzuen inguruko informazioa eman bada ere, herrigunetik kanpo geratzen diren auzoekin hartu-eman gutxi dagoela sentitu du Udalak», diote Ongizate Saitetik.

Gizarte Zerbitzueta teknikiariak gustura daude izan duten harrerarekin, eta proposamen ugari jaso dituzte auzo auzo.

Arriaran

Arriarango bizilagunek auzoan bertan gimnasia ikastaroa antolatzea proposatu zuten. Beste ideia bat ere mahaiaren gainean jarri zuten arriarandarrek: auzotik herri gunera garraioa izateko aukera.

Beasainmendi

Beasainmendiko bizilagunek kezka azaldu zuten azkenaldiko euriteen ondorioz gertatutako lur jausiek bideak itxi



Astigarretako auzotarrekin apirilaren 24an egin zuten bilera.

dizkietelako. Bestetik, bilgune edo elkargune baten beharra ere azpimarratu zuten Beasainmendiko bizilagunek.

Astigarreta

Astigarretako bilera ere emankorra izan zen. Astigarretarrek garraio arazoak dutela nabarmendu zuten, garraio publikorik ezean, herrira jaisteko autoa derrigorrezkoa dutela. Gai horren harira, TAO sistema dela eta, auzotarrek egoiliar txartela izateko eskubidea aztertze eskatu zuten. Bestetik, hondaki-

nak birziklatzeko edukiontzirik ez dutela jakinarazi zuten. Azkenik, gazteenek, Internet-en beharra azpimarratu zuten, zenbait tokitan arazoak dituztelako.

Gainerako bilerak uda aurretik

Lehen bilera errondarekin bukatzeko Garingo, Matxinbentako eta Gudugarretako auzotarrekin egin beharrekoak geratzen dira. Udaletik jakinarazi dutenez, uda aurretik egingo dituzte falta diren bilerak.

Las técnicas y la concejala de Bienestar Social del Ayuntamiento se están reuniendo con los vecinos y las vecinas de Arriaran, Beasainmendi, Garin, Astigarreta, Gudugarreta y Matxinbenta, para conocer las necesidades que existen en los barrios que se encuentran a las afueras del núcleo urbano. El Departamento de Bienestar Social está muy satisfecho con los resultados obtenidos en las reuniones.

En Arriaran se trataron dos temas: organizar un curso de gimnasia en el barrio y analizar el sistema del transporte público para unir Arriaran con el centro.

●● Lehen errondarekin bukatzeko uda aurretik egingo dituzte bilerak Garingo, Matxinbentako eta Gudugarretako auzotarrekin ●●

En Beasainmendi les preocupan los desprendimientos de tierra que han generado las lluvias de los últimos meses. Además reclaman un lugar de encuentro para reunirse.

En Astigarreta subrayaron el problema de la movilidad, ya que para bajar al centro es necesario utilizar el coche. Al mismo tiempo, pidieron contenedores para reciclar y medidas para mejorar el servicio de Internet.

Para terminar la primera ronda, las reuniones de Garin, Gudugarreta y Matxinbenta, se realizarán antes de verano.

Musika kalean

Musika Eskolako ikasleek musika kalea aterako dute maiatzaren 3an, 19:30ean. Konbo, pop eta rock taldeak osatzen dituzte ikasleek. «Hainbat kasutan talde hauek ikasturte bateko iraupena izaten dute, baina gehienetan oso gustukoa izaten dutenez, bi edo hiru ikasturtetan aritzen dira elkarrekin», diote musika eskolakoek.

Narama abesbatza eta Udaberriko jaialdia

Musika Eskolako 13 eta 17 urte arteko gazteek osatzen duten Narama abesbatzaren aurkezpena egingo dute hilaren 9an, 19:30ean, Igartza-ko jauregian.

Musika Eskolako ikasle gazteenek berriz, maiatzaren 28an 17:30ean eskainiko dute Udaberriko emanaldia, Loinazko San Martin plazan.

XI. Kantaldia antolatu du Loinatz Musika Eskolak maiatzaren 4an

Herritarrak kantuan jarriko dituzten ere Loinatz Musika Eskolak. Kantaldiaren hamaikagarren edizioa antolatu dute maiatzaren 4rako. Gernika Pasealekuko frontoian izango da, 19:30ean. Euskal abestiak eta euskara plazaratzeko eta bultzatzeko helburuarekin hasi ziren Kantaldia antolatzen, eta herritarren parte hartzea bultzatu nahi dute ekimenarekin.

Horretarako, herriko hainbat talde gonbidatu dituzte: besteak beste, Loinatz abesbatza, Asmube, Musika Eskolako ikasleak, Udal Euskaltegia, Mintzalagunak, Kantu Jira taldea, Bategite Elkartea, Erretiratuen abesbatza, San Martin Parrokiko abesbatza eta Aurtzaka. Hemezortzi abestiko errepertorioa osatuko dute guztien artean. Musika Eskolako irakasleek jarriko dute musika. Kantuen liburuxkak banatuko dira ekitaldian, 0,50 eurotan. Tabernatxoa ere jarriko dute ekitaldiak irauten duen bitartean pintxoak eta edariak saltzeko.



Loinatz Musika Eskola ha organizado una nueva edición de Kantaldia para el 4 de mayo, en el frontón de Gernika Pasealekua, a las 19:30. Los grupos Asmube, alumnado de Musika Eskola, Udal Euskaltegia, Mintzalagunak, Kantu Jira, asociación Bategite, coro de los jubilados, coral de la parroquia de San Martin y Aurtzaka subirán al escenario para cantar una canción en euskara, con la ayuda del profesorado de Musika Eskola.

BEASAINO

LOINATZ

Musika Eskola

9:6

Ikasle berrientzako

MATRIKULA EPEA:

maiatzaren 27tik ekainaren 7ra

Asteleheneretik asteazkenera,

9:00-13:30 eta 17:00-19:00

ostegun eta ostiralean, 9:00-13:30

Prestakuntza musikala

Formación musical

Klarinetak, trapa, trenboak, kantua, biolina, gitara, gitarra elektrikoa, pianoa, saxofoiak, txistuak, trapeskako flauta, dulzaina, akordeoiak, teklatuak, trikitixa, panderoa, perkusioa, bateria, musika lengoia, harmonia, informatika musikala, musika historia, musika analisia, ikastaro bereziak...

MATRÍCULA nuevos alumnos:

del 27 de mayo al 7 de junio

De lunes a miércoles, 9:00-13:30 y 17:00-19:00

jueves y viernes, 9:00-13:30

Musika taldeetan parte-hartzea

Participación en agrupaciones

Banda, konbo, pop, rock, abesbatza-koro, harizko orkestra-arquesta de cuenda, txistulari banda-banda de txistularis, trikitixa, gitara, perkusio eta akordeoi taldeak-grupos de trikitixos, guitarras, percusión y acordeones.

Bertso eskola: hitzarekin eta hizkuntzarekin jolas egiteko gunea

Bertsolaritza eta bertsozaleasuna bultzatzeko helburuz ari dira lanean bertso eskolak. Euskararekin jolas eginez, errimaz eta doinuuz, bertsoak osatzen ikasten dute haurrek. Hizketan trebatzeaz gain, oroimena, irudimena eta inprobisazioa hobetzen laguntzen du bertsoak.

Beasainen aurtengo ikasturtean 9 eta 13 urte bitarteko 14 neska-mutiko ari dira Eneritz Artetxe bertsolariarekin. As-teazken eta ostegun eguerdietan, Asmuberen egoitzan biltzen dira. Ordutegiak eta egunak, haurren beharretara egokitzten saiatzen da bertso eskola.

Ikastetxeetan

Herriko ikastetxeetan bertsolaritza eta ahozketasuna ere lantzen dute. Ikastetxeetan egiten den lanen erakusgarri, maiatzaren 7an eta 8an jaialdiak egingo dituzte Alkartasuna Lizeoko, Murumendiko, Andramendi Ikastolako eta La Salle-San Jose ikastetxeko ikasleek. Usurbe antzokian izango dira saioak.

Irakasleentzat aberasgarria da bertsolaritza eta bertsoaren teknika eskolan lantzea. Astean ordubetez lantzen dute bertsoa eta Amaia Agirre bertsolariaren laguntza izaten dute. Murumendi ikastetxeko Lurdes Telleria irakaslearen ustez, «gure kulturaren errotuta dagoen zerbait umeez ezagutzeko modua da. Bertso

Matrikula

Datorren ikasturtean bertso eskolan parte hartu nahi dutenek, maiatzaren 20tik ekainaren 3ra izango dute izena emateko aukera. Hirugarren mailatik aurrerakoek eman dezakete izena.

El plazo para la matrícula del próximo curso será del 20 de mayo al 3 de junio.



•• Gure kulturaren errotuta dagoen zerbait umeez ezagutzeko modua da. Bertsoaren teknika, doinuak... ezagutzeko aukera ematen du ••

mundua, bertsoaren teknika, doinuak, bertsoa bera... ezagutzeko aukera ematen du». Bertsoaren bidez, hiztegia eta memorizatzeko teknikak lantzen direla gehitu du Telleriak.

Los miércoles y los jueves al mediodía 14 niños y niñas se juntan en la Bertso

Eskola de Beasain, para «jugar» con las palabras y con el euskara. Además de profundizar en el euskara, los bertsos ayudan a potenciar la memoria y la improvisación.

En los centros de enseñanza de Beasain también se trabaja el bertso. Los días 7 y 8 de mayo, el alumnado de Alkartasuna Lizeoa, Murumendi, La Salle y Andramendi Ikastola, ofrecerán actuaciones que han preparado durante el curso. Para la profesora Lurdes Telleria de Murumendi es muy enriquecedor trabajar con los bertsos, ya que gracias a ellos el alumnado desarrolla el lenguaje y las técnicas de memorización.

Iztuetako esne makinaren 3. urteurren festa, maiatzaren 4an

Hiru urte dira Lazkaomendiko Iztueta Azpikoa baserrikoek Barrendain Plazan, behi esnea saltzeko esne makina jarri zutela. Hirugarren urteurrena ospatu nahi dute beasaindarrekin eta bezeroekin, eta horretarako festa antolatu dute.

Maiatzaren 4an, goizeko 11:00etan hasita, haurrentzat zein helduentzat ekintza ugari antolatu dituzte: astoan paseoak, behi puzgarria, esne dastaketa, txokolate beroa, jolasak, panel informatiboak...

Esne bila bertaratzen direnentzat,



esne botilentzat neurriko poltsa berrera-bilgarriak oparitu dituzte.

Iztueta Elkartea ha organizado una fiesta de agradecimiento para celebrar el tercer aniversario de la máquina expendedora de leche. Comenzará a las 11:00, junto a la máquina y habrá diferentes actividades: paseos en burro, vaca hinchable, degustación de leche, chocolatada, juegos, paneles informativos sobre los beneficios de la leche de vaca... A los asistentes les regalarán una bolsa reutilizable para llevar dos botellas de leche.



Dantzari Txiki eguna ospatuko da maiatzaren 5ean.

3 ostirala

19:30 Musika kalean. Gernika pasealekuko frontoian. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola.

19:00 Kepa Gaztañagaren eta Mikel Mujikaren hitzaldia: 'Orkli. l+G+b'. Igartzako jauregian. Antolatzailea: Lemniskata, Goierriko Zientzia Sare Herrikoia.

4 larunbata

08:00 Adineko pertsonentzako mendi irteera: Beasain-Arantzazu autobusez, eta ondoren Urbiera. Barrendain plazan.

11:00 Iztuetako esne makinaren hirugarren urteurren festa. Barrendain plazan.

19:30 Kantaldia. Gernika pasealekuko pilotalekuan. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola.

5 igandea

Dantzari Txiki eguna.

12:00 Dantzariak Beasaingo kaleetan ibiliko dira.

13:00 Dantzarien bilkura. Loinazko San Martin plazan.

16:30 Erromeria. Gernika pasealekuko pilotalekuan.

Antolatzailea: Aurtzaka Dantza Taldea

7 asteartea

18:00 Bertsolaritza eta ahozketasuna jaialdia: La Salle-San Jose eta Andramendi ikastolako ikasleen eskutik. Usurbe antzokian.

8 asteazkena

17:00 eta 17:45 Bertsolaritza eta ahozketasuna jaialdia: Alkartasuna Lizeoko eta Murumendiko ikasleen eskutik. Usurbe antzokian.

9 osteguna

19:30 Musika Eskolako 13 eta 17 urte bitarteko ikasleen Narama abesbatzaren aurkezpena. Igartzako jauregian.

10etik 19ra

Loinatz jaia.

27 astelehena

18:30 Berdintasun Foroaren bilera. Udaletxeko batzar aretoan.

28 asteartea

17:30: Musika Eskolako ikasle gazteenen Udaberriko jaialdia. Loinazko San Martin plazan. Antolatzailea: Musika Eskola.

BEASAINGO GAZTETXEA

3 ostirala

21:30 Jangela begetarianoa.

23:00 Kontzertua.

Erakusketak

Maiatzaren 5era arte: Orkli kooperatibaren produktuen erakusketa. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Lemniskata.

Maiatzaren 31tik ekainaren 9ra arte: Institutuko arte ikasleen erakusketa. Usurbe antzokiko erakusketa aretoan. Antolatzailea: Beasain Institutua.

Zinea

Ander (Goieniz):

Maiatzak 2, osteguna: 21:00.

Los últimos días:

Maiatzak 4, larunbata: 19:30/22:30.

Maiatzak 5, igandea: 19:30/22:00.

Maiatzak 6, astelehena: 19:30/22:00

Tom Sawyer:

Maiatzak 5, igandea: 17:00.

De óxido y hueso (Goieniz):

Maiatzak 23, osteguna: 21:00.

Ovbilion:

Maiatzak 25, larunbata: 19:30/22:30

Maiatzak 26, igandea: 19:30/22:00

Maiatzak 27, astelehena: 19:30/22:00

La caza (Goieniz):

Maiatzak 31, ostirala: 21:00.

Jarraitu Beasaingo udal
informazioa Interneten,
facebook-en eta twitter-en



beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala

Helbidea: Loinazko San Martin plaza

Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefona: 943 02 80 50

Webgunea: www.beasain.org

Diseinua: Bidera Zerbitzuak